

Joxerra Aizpurua

INGENIARI INDUSTRIALA

Auzatik Behartzunera, ezer berririk ez

Auza eta Behartzun bitarteko lurrak behatzea egokitu zitzaigun 1981. urtean, soldaduska egiten ari ginetako batzuo. Eguna joan eguna etorri, aginpidea zutenek “ezer berririk ez” esaten zioten elkarri.

Urte hartan, egitura militarra eta egitura-
ren katebegi bakoitzean egokitzen zaionaren
zeregina hurbiletik ezagutzeko aukera izan
nuen. Ia 30 urte pasa ondoren,
egitura militarra, militarren artean
ez ezik, gure gizarteko egitura
gehienetan ezarrita dagoela ikus-
ten dut: elizan, administrazioan,
familia tradizionalan... Areago,
askotan, gauden tokian gaudela,
egitura militarren funtziona-
mendu-arauak jartzen ditugu
konturatu gabe abian, eta bereziki
gizonezkoak garenok, gizartean
dugun nagusitasun historikoa
dela medio.

Euskal Herrian enpresaburuen arteko bil-
tzar ugaritan parte hartu dut eta enpresetako
kudeatzaile gehienak gizonezkoak dira eta
horietatik asko nire adinekoak edo zaharra-
goak. Enpresaburu horiei berrikuntzan
inbertitu behar dela entzuten diegu egunero,
eta berrikuntzari buruzko zenbait definizio
botatzen dizkigute. Besteak beste, “Negozioa
prozesuetan antolatu behar da”, “bezeroa
bazkide teknologiko gisa hartu behar dugu”,



DANI BLANCO

“aldaketarekiko dagoen erresistentzia gain-
ditu behar da”, “laneko metodoak aldatu
behar ditugu” bezalako esaldiak entzungo
ditugu. Esaldi horiek foroetan errepikatzen
dira eta ondoren enpresetako kudeatzaile-
ek euren zuzendaritzapeko katebegietako
arduradunei transmititzen dizkiete.

Enpresa batzuetan besteetan baino arra-
kasta handiagoa izaten du berrikuntzaren
inguruko jarduerak, baina gehie-
netan oso prozesu motela izaten
da, esperientziak eta nire inguru-
ko adibideek erakutsi didatenez.
Zerbait lortu ahal izateko berri-
kuntzaren kulturarekin bat egin
behar dugu, egia da. Baina nagu-
siki kudeatzaileak dira etsenplu
izan behar dutenak eta hementxe
dago, hain justu, arazo nagusia:
gure kudeatzaileak kultura mili-
tarpeko gizonezkoak dira, besteei
esan bai baina beraien boterea eta

egitura mentala aldatzen ez dutenak, egitura
piramidalarekin segitzen dutenak.

Horrelako baieztapen orokorrak egitearekin
batera ziur nago salbuespen ugari egin behar
direla, baina ziur nago kultura militarrik gabe-
ko kudeatzaileekin, emakumeak edo gazteak
adibidez, berrikuntza-prozesu sintzera eta
azkarragoak bizi izango genituzkeela. Bitar-
tean berrikuntza-planetik planera “ezer berri-
rik ez” edo hobe esanda “oso berri gutxi”. ■

«
Gure kudeatzaileak kultura militarpeko
gizonezkoak dira, besteei esan bai
baina beraien boterea eta egitura
mentala aldatzen ez dutenak
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



*Visca el Barça*rekin batera
oihukatu zuten Nou Cam-
pen behin eta berriz fut-
bola jokoa, jolasa eta zenbaitengan artea
ere badela erakutsi ondoren jokalariek.
Telebistaz ikusi nituen, bertan madrilezale zenbait ingu-
ruan nituela. Yaya Tourék Messik egindako golean
eraikitako jokaldiaren ederraz gozatzen ari ginela heldu
zen partidaren bukaera eta bertakoen pozaren leher-
tzea. Hamar bat minutuko tartean joan ziren jokalarien
viscak eta bere horretan utzi nituen. Autoaren irratiak
salatu zidan espainiarren herra. “Ez dago eskubiderik”
zioten esatariek elkar berotuz. Katalanez mintzatu

Visca Catalunya

omen zitzaien zaleei, Kataluniatik at
katalana ulertzen ez duten barçazale
andanari irain eginez. Izan ere, Barça
Katalunia baino gehiago da, zioten, eta jokalariek
nazionalismo estu, probintziar eta txokozalez txikiago-
tu egin dute beren garaipena. Jeloskor eman nintzen.
Guretako batzuek holako garaipen baten ondoren eus-
karaz hitz egingo baligute, lehertu egingo nintzateke,
hain ohituak baigauzkate bereak espainieraz gozatzen.
Entzun bestela Pasaban tolosar anderearen hitzak
hamalagarrena lortu eta. Ez nau berotu bereak eta
orain badakit zergatik. Ni ere txokozale izaki noski,
erdara pare bat ulertu arren. ■